

DIRULAGUNTZA-DEIALDIAREN LABURPENA

Zarauzko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2026ko otsailaren 23ko Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA ETA WEBGUNEAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRULAGUNTZA NORGEHIAGOKA ARAUBIDEZ EMATEKO 2026. URTEKO DEIALDIA egin zen.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke ([http: xxxxxxxx](http://xxxxxxx)).

Onuradunak: Helbide fiskala, egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Zarautzen duten pertsonen edo entitateek eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntzak.

Establezimenduek beharrezko lizentziak izan beharko dituzte (jarduerakoa, errotulua edota toldoa jartzekoa).

Helburua: Deialdi honen helburua da 2026. urtean udalerriko establezimenduetan euskararen erabilera sustatzeko norgehiagoka araubidez emango diren dirulaguntzak arautzea. Dirulaguntzetan hiru arlo izango dira kontuan: errotulazioa, irudi korporatiboa, eta webguneak.

Oinarri arautzaileak: Euskara Departamentuko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak (2024ko apirilaren 5eko GAO, 66 zk.).

Zenbatekoa: 6.000,00 €

Eskabideak aurkezteko epea: Hogeita hamar egun baliodun, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

([Itxiera](#))